

BERRI OROKORRAK

2023ko urtarrilaren 13an 17. zenbakia

Jangelako oharra

Hona hemen **urtarrileko** jangelako [menua](#).



Eski-irteeraren inguruko informaziorako bilera-deialdia

Eski irteerako xehetasunak zehazte aldera, izena eman duten ikasleen gurasoei bilera egingo dugu.

- **Egun baterako irteera:** urtarrilaren 16an 16:30ean ikastolako jangelan
- **Bi egunetako irteera:** urtarrilaren 16an 17:15ean ikastolako jangelan



Irteera-datak: egun bateko irteera urtarrilaren 28an izango da eta bi eguneko irteera urtarrilaren 21ean eta 22an.

San Sebastian eguna

Datorren **ostiralean** San Sebastian eguna dela eta, **ikastolako ikasleek (3-16 urte) jai eguna** izango dute. Haur Eskola irekita egongo da.



Arauk eta mugak familian

Urtarrilaren 12an eta 19an 17:00etatik 19:00etara Potxoenean, haur eta nerabeen gurasoei zuzendutako doako tailerra.

Gaia: Arauk eta mugak familian.

Izen-ematea: usurbilkultura.eus, gaztelekuausurbil@gmail.com edo hitzaho@udarregi.eus

[Hemen](#) informazio osoa.



Zu ere mintzalagun

Aurten ere, Usurbilgo Mintzalagunen parte hartzeko aukera zabaldu da: astean behin mintzataldean bildu eta patxadaz hitz egin, bestelako jarduerak, hitzaldiak, txangoak eta besteetan parte hartu.

Izen-ematea zabalik dago, doakoa da eta hainbat abantaila ditu, tartean deskontuak, opariak...

Izen-ematea: euskaltegia galdetu edo [klikatu hemen](#).



HAUR-HEZKUNTZA

Material-kobranta

2022/23 ikasturteko **HH-ko eskola-materiala** urtarrilaren 16an kobratuko dela jakinarazten da, hileko kuotarekin batera.

Erreziboaren zenbatekoa **35,00 €-koa** izango da.



Danborrada

Datorren ostegunean, urtarrilak 19, arratsaldeko 16:00etan danborrada joko dugu Agerialdeko jolastokian LHko ikasleekin batera.

Egunean bertan, haurrak **koadrodun lepoko zapiarekin jantzita** bidal itzazue.

OHARRA: entseguetarako makilak izenarekin ekarri, mesedez.



LEHEN HEZKUNTZA

Danborrada

Datorren ostegunean, urtarrilak 19, arratsaldeko 16:00etan danborrada joko dugu Agerialdeko jolastokian HHko ikasleekin batera.

LH1eko ikasleak makilak ekarri behar dituzte hurrengo astelehen edo asteartean.

LH2-3-4-5-6 mailako ikasleek danborrak eta makilak ekarri behar dituzte hurrengo astelehen edo asteartean.

Egunean bertan, haurrak **kuadrodun lepoko zapiarekin jantzita** bidal itzazue.

